



INGURALDEren POLITIKA

Barakaldoko INGURALDEK, Garapen Osorako Organismo Autonomoak, honako jarduerok ditu ardatz nagusitzat:

A) Osoko informazio, aholkularitza eta prestakuntza eskaintzea, enpresa-kudeaketa arloan hobetze aldera.

Informazio, aholkularitza eta prestakuntza eskaintzea, enpresa-ekimenak abiatu eta finkatzen laguntze aldera.

Herritarrak dinamizatu eta sentsibilizatzea, Barakaldoko garapen ekonomikoaren alde egin dezaten.

B) Kontsumitzaileei argibideak emateko zerbitzua (KIUB).

C) Enplegua bilatzeko informazio, aholkularitza, prestakuntza eta bitartekaritzalanak eskaintzea.

Horrelako politikaren zehaztapen eta hedatzeren bitartez, erakundearen jarduerak hurrengo konpromiso hauek hartzea nahi da:

1.- ESTANDARRAK ETA LEGEZKO BALDINTZAK BETETZEA:

- 1.- Gure bezeroen beharrianak betetzea.
- 2.- Gure bezeroek zerbitzurako eskaturiko kalitate-baldintzak guztiz betetzea.
- 3.- UNE-EN ISO 9001:2008 Nazioarteko Arauan jasoriko baldintzak guztiz betetzea.
- 4.- Emandako zerbitzuari ezarri ahal zaizkion **legezko baldintzak** ez ezik ingurumenaren eta segurtasun eta osasun gaien arloan erakundeak hitzartu ditzakeen bestelako beharrik ez direnak ere betetzea
- 5.- Erakunde eta instituzio publikoekin batera jokatzeko beti.

2.- BEZEROEN GOGO BETETZEA:

- 1.- Bezeroen **gogobetetzea** bilatzea, beti ere etengabeko hobekuntzaren bidez.
- 3.- **Neurrira** egindako produktu eta **zerbitzuak** eskaintzea bezeroei, dituzten beharren arabera.
- 4.- Gure bezeroen datuei dagokienez, erabateko **konfidentzialtasuna** ziurtatzea.



5.- Gure erakundeko enplegatu guztien inplikazioa, motibazioa eta konpromisoa eragitea.

6.- Kudeaketa Osoko Sistemaren ezarritako helburu eta xedeen etengabeko ebaluazioa egitea.

3.- INGURUMENAREKIKO BEGIRUNEA:

1.- Hondakinak modu egokian kudeatzea eta kutsadura saihesteko behar diren tresnak ezartzea.

2.- Gure jardueraren beraren ingurumen alderdiak identifikatu eta kudeatzea.

3.- Gure erakundeko enplegatu guztien ingurumen prestakuntzaz arduratu eta berori buruzko informazioa ematea.

4.- Bitartekoak sortu eta horiei eustea, alde interesdun guztien iritziak jakite aldera.

4.- LANGILEEN SEGURTASUNA:

1.- Saihets daitezkeen arriskuak deuseztatzea, eta saihesterik ez dauden arriskuak ebaluatu eta kontrolatzea, erakundeko pertsonen osasun galera eta kalteei aurrea hartzeko.

2.- Langileen aldezkatu azterketa medikoa egiteko sistemaren bat ezartzea, beti ere lanpostu bakoitzari datxezkion arriskuak kontuan edukiz.

3.- Enplegatu guztien segurtasun prestakuntzaz arduratu eta behar bezalako informazioa ematea, lanean segurtasunez eta osasunez jardute aldera.

4.- Prebentzioari dagokionez, langileekin kontsultak egin eta haien parte hartzerik handiena ematea, haien osasunean eta segurtasunean eragina izan dezaketen alderdi guztietan.

5.- Lan eta ongizate baldintzak etengabe hobetzea, bai eta, lan giroaren eta giro profesionalaren baldintzak ere, aldi berean, ezbehar kopurua murriztea.

INGURALDEko Zuzendaritzak hitzematen du goian aipaturiko Politika babestu egingo duela, bai eta, Kudeaketa Bateratuko Sistemaren jasotako Etengabeko Hobekuntzako prozesuak etengabe zehaztu eta gainbegiratuko dituela eta, halaber, eutsi egingo diela, modu horretara, Kudeaketako Sistemaren jasotako Helburuak eta Xedek erdieste aldera.



Barakaldo
CIUDAD · HIRIA

inguralde

Kudeaketa Osoko Sistemari ezarritakoa betetzea da Erakunde osoaren erantzukizuna, izan ere, erronka horren arrakastak guztion konpromisoaren beharra du.